

# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## Frantzia larri lehortearekin

UDAREN ATARIAN gauden honetan ohitura da herri eta estatu askotan ur-erreserben balantzea egitea. Espainiako Estatua izan da azken hamarkadetan Europan ur-arazo gehien izan dituen, baina aurten ez da horrela izango: bertako urtegiak beren ahalmenaren %80raino daude beteta. Aurten, Europa aberatsoko estatuetan dago arazoa.

Guztien artean Frantziakoa da larrien dabilena, azken ehun urteko udaberri beroena izateaz gain lehorrena ere izan baita aurtengoa. 60 departamentutan ur-murrizketak ezarri dira, eta egoera larriena Paris eta Bordele arteko lurraldean dago.

Hori dela-eta, ur-kontsumoari buruzko eztabaida piztu da. Eztabaidagai dira, besteak beste, eskala handiko nekazaritza eta Paris inguruko populazioaren hazkundera; haiei egozten zaie lurrazpiko ura gutxitu izana. Beste behin ere, berandu konturatu dira azken hamarkadetako garapen ereduaren ondorioez.



VICTOR PIRIZ

## Arroza Txinan sortu zen

AEBETAKO HAINBAT UNIBERTSITATEETAKO ikerlariak arrozaren historia aztertu berri dute eta emaitza garbia izan da: arroza, gaur egun ezagutzen dugun eran, Txinan sortu zen orain dela 9.000 urte, Yangtse ibaiaren haranean.

Arroza Asian etxekotu zela ez zegoen dudarik, baina ez zegoen argi Indian ala Txinan ote zuen jatorria.

Asiako arroza edo *Oryza sativa* espeziea da munduan gehien landu den laboreetakoa; milaka barietate sortu badira ere, *Japonica* eta *Indica* izan dira azpiespezierik erabilienak. Egun, Asiako lur gehienetan topatzen dira.



LING.WISC.EDU

## Newtonen legeak desberdin sumatzen dira zutik eta etzanda

Alemaniko ikerlari talde baten arabera, ez da gauza bera Pisako dorrea etzanda zaudela ala zutik zaudela ikustea. Gure garunak desberdin funtzionatzeko omen du aipatu bi posizioetan. Horrek esan nahi du ez dugula zuzenean igartzen grabitatearen indarra, haren zeharkako ondorioak baizik.

<http://ttiki.com/29200> (Gaztelaniaz)

## Loditasunaren aurkako gerran beste urrats bat

Uda partean askok egiten dute dieta, edo botikak edota tratamendu bereziak hartzen dituzte gorputzeko gantza gutxitzeko. Ikerlari batzuek lortu dute arratoietan gantza eraldatzea; hala sortutako gantz mota berria errazago galtzen da. Gizakiontzat interesgarria izan daiteke aurkikuntza, eraldaketa bera gure gorputzetan egiteko modua asmatzen badugu.

<http://ttiki.com/29201> (Gaztelaniaz)

## Marterako bidaia simulatuak urtebete egin du dagoeneko

Moskun egiten ari diren Mars 500 esperimentuak, Martera bidaia simulatuak alegia, urtebete egin du. Parte hartzen ari diren sei astronautek, guztira, 520 egun eman beharko dituzte "espazio ontzian".

<http://ttiki.com/29202> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**  
interaktiboa  
[www.iametza.com](http://www.iametza.com)  
T.943 37 67 16